

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko gure aldetik ere jarri behar dugu eta horretarako ditugun trebetasunak erabiliko ditugu. Negozio batekin hasteko diru kantitate bat izatea beharrezkoa da, hasieran dauden kostuei aurre egin ahal izateko. Horregatik, taldeko kide bakoitzak diru kopuru bat jarri beharko du lehen hilabetean, zehazki, 600 €. Horrela, gure zerbitzuarekin hasteko behar ditugun baliabideak eskuratzeko gai izango gara, hots, lokala, eskolako materiala, etab.

Hasteko baliabide intelektualei dagokionez, Mikelek ezagutza ugari ditu enpresaren eskubideak lortzeko edota legeekin orokorrean; izan ere, bere aita abokatua da. Txikia zenean bere aitarekin igarotzen zuen eguna lanean zegoenean, eta batzuetan zenbait epaiketara eramaten zuen ofizioa ikasteko. Horrela asko ikasi zuen, eta ezagutza nahikoa ditu mundu horretan. Gainera, bere aitak lagundu egin diezaguke, bere jakintza irakatsiz. Mikelek duen ezagutza hau legearekin arazoak ekiditeko da baliagarria. Hori gutxi balitz, hainbat enpresa eta zerbitzuekin negoziatzeko eta hauek limurtzeko erabilgarria izango da.

Bestalde, Ane oso ondo moldatzen da ordenagailuekin, webguneekin eta sare sozialekin. Trebetasun hauetaz gain, konfiantza handia eragiten du lehengo inpresioan eta aurrean dagoena berarekin eroso sentitzea eginarazten du. Horrekin batera, pertsonekin jarduten oso ondo moldatzen da, oso lagunkoia delako. Era berean, enpatia asko duen pertsona bat denez, besteen lekuan jartzeko ahalmen handia du, eta aurreiritziak baztertzen saiatzen da. Ane pertsona bakoitzaren bertuteak eta izateko modua aztertzeke era oso azkarrean ikusteko gai da. Gainera, besteen iritziak entzuten eta errespetatzen ditu. Hau guztia oso baliagarria izango da kanpo harremanak egiterakoan: unibertsitateekin harremana egiteko, esate baterako.

Beste alde batetik, Josuk gaitasuna du ekintza eta taldeak antolatzeko eta koordinatzeko, oso ordenatua eta perfekzionista baita. Gainera, beste pertsonen gaitasunak identifikatzeko eta modu eraginkorrean erabiltzeko gai da. Hori gutxi balitz, aldi berean hainbat zeregin burutzeko gaitasuna eta proaktiboa izateko ahalmena du. Horretaz gain, oso ondo moldatzen da zenbakiekin, matematika asko gustatzen zaiolako. Hori dela eta, gure zerbitzuaren zati garrantzitsu bat eramango du; izan ere, ekonomiari bideratuta dagoen jardueratan arituko da, hots, finantziarioa eta diru-sarrerak.

Honekin jarraitzeko, Maialen oso ondo moldatzen da hizkuntzak ikasteko eta praktikan jartzeko garaian. Bere ama-hizkuntza gaztelera eta euskara dira, eta txikitatik hasi zen ingelesa ikasten. Urte batzuk igaro ahala, Alemana aditu nahi zuen, eta horretarako partikular batean izen ematea erabaki zuen. Bere ametsa Alemanian bizitzea da. Gainera, DBH1-etik orain arte frantsesa ikasten egon da, eta

ahalegin eta gogo asko jarri ondoren, gaur egun gai da frantsesa erraz hitz egiteko. Maialen, anbizio handiko pertsona bat da, eta proposatzen duen guztia lortzen du. Gaitasun hauek besteekin komunikatzeko erabil daitezke. Hortaz aparte, oso ondo antolatzen du bere burua eta taldea. Maialenen baliabide intelektuala funtsezkoa da beste hizkuntza bat hitz egiten dutenekin komunikatzeko.

Bukatzeko, Joanes jendea konbentzitzeko erraztasuna du. Edozein gairi buruz argudiatzeko gai da eta horrela bere ikuspuntua besteei influentziatzen die. Gainera, duen karismarekin errazagoa da harekin harremanak izatea edo hura hurbil izatea atsegina da. Edozein egoeratarra egokitu daiteke, bere berezko balioak eta ideiak mantenduz. Gainera, ondo moldatzen da jendaurrean hitz egiteko, gauza gutxik ematen baitiote lotsa. Denbora oso ondo aprobetxatzen daki, makina bat gauza produktiboak eginez. Joanesez dituen bertute hauek oso lagungarriak izango dira diru laguntzak lortzeko garaian, zenbait enpresa eta udaletxe limurtu egin beharko dituelako.

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, funtsezko material fisikoa beharko dugu, hala nola, mahiak, aulkiak, liburuak... klaseak emateko behar-beharrezkoak direlako. Bestalde, ordenagailu baten beharra izango dugu enpresaren kudaketa egin ahal izateko.